

ESKOLA ABSENTISMOAREN
KASUETAN JARDUTEKO
PROTOKOLOA

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA
DEPARTAMENTUAREN ESKOLA
ABSENTISMOAREN ETA UZTEAREN
KONTRAKO BATZORDEA

AURKIBIDEA

1.- JUSTIFIKAZIOA	3
2.- KONTZEPTU-MARKOA	4
2.1.- ABSENTISMOAREN KONTZEPTUA ETA ABSENTISMO MOTAK	4
2.2.- ALARMA ZANTZUAK	6
2.3.- PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK	7
3.- MARKO INKLUSIBOA	8
3.1.- ABSENTISMOA IKASTETXEAN LANTZEA	8
3.1.1.- PREBENTZIO JARDUKETAK	8
3.1.2.- DETEKZIO JARDUKETAK	9
3.1.3.- ESKU-HARTZE JARDUKETAK	9
4.- ABSENTISMOAREN LEGE MARKOA	11
4.1.- ESTATUKOA	11
4.2.- FORU KOMUNITATEKOA	11
5.- ESKU-HARTZE PRINTZIPIOAK	16
6.- ESKU-HARTZE MAILAK	17
1. MAILA: IKASTETXEAK	17
2. MAILA: OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN SAREA	18
3. MAILA: ADINGABEAREN BABESA	22
4. MAILA: FISKALTZAKO ADINGABEEN ATALA	23
I. ERANSKINA	24
II. ERANSKINA	25
III. ERANSKINA	26
FLUXUGRAMA	28

1.- JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntza Departamentuaren Eskola absentismoaren eta uztearen kontrako batzordea maiatzaren 17ko 45/2012 Foru Aginduaren babesean sortu zen. Foru agindu horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiaren, Hezkuntza Departamentuaren, Gizarte Politika, Kirol eta Gazteriako Departamentuaren, ijito elkarteen eta FAIN Etorkin Elkarteen Federazioaren arteko lankidetzeta hitzarmena.

Aipatutako batzordearen berariazko helburuetako bat da (B) "Lankidetzarako eta erakundeen arteko koordinaziorako prozedurak ezartzea, eskola absentismoari aurrea hartzeko, detektatzeko edo esku hartzeko jarduketetan eta eskola behar baino lehenago uzten den kasuetan".

Protokolo hau jarduera ildo horretan kokatzen da eta helburu nagusi hori betetzeko prozedura ezartzen du, eskola absentismoaren kasuetan modu hierarkizatu eta ordenatuan jarduteko.

Dokumentuaren aurretik marko hirukoitza ezarri da, haren oinarria zein den jakiteko, testuinguruan kokatzeko eta zentzu burokratikoetik haragoko zentzua emateko:

- **Marko teorikoa:** arazo honekin zerikusia duten ideiak azaltzen dira eta kontzeptu nagusiak zehazten dira.
- **Marko inklusiboa:** ikastetxe batek eskola absentismoari aurre egiteko hartu beharreko mota orotako neurriak zein diren esaten da.
- **Lege markoa:** adingabearen eskubideak eta hezkuntzarako eskubidea arautzen dituzten foru legeak eta Estatuko lege nagusiak biltzen dira, gai honetan arau-erreferente zuzenak direnak, alegia.

2.- KONTZEPTU-MARKOA

2.1.- ABSENTISMOAREN KONTZEPTUA ETA ABSENTISMO MOTAK

ABSENTISMOA: Nahitaezko etapetan (6-16 urte) klasera erregularitasunez ez joatea da. Zehatzago esanez, eskola absentismotzat hartzen da ikaslea ikastetxera ez joatea, kausa justifikaturik gabe eta nahitaezko eskolaldiaren adinean egonik.

Absentismoa handia dela usteko da %50ekoa baino handiagoa denean, ertaina %50etik %25era bitartekoa denean eta noizbehinkakoa %25etik beherakoa denean.

Hala ere, absentismoa gertakari konplexua da, modu eta maila askotan gertatzen dena eta hura lantzeko hizkuntza komuna behar duena. Horren baitan dago ekintza koordinatu eta eraginkorrak diseinatu ahal izatea. Absentismotzat hartzen baditugu soilik absentismoaren goreneko eta muturreko mailak, pixkana-pixkanaka maiz modu isil eta ez oso ikusgarrian eraikitzen ari den gertakari bat ulertzetik urrunduko gara. Horretaz gainera, arazoa detektatu eta hartan esku hartzeko gaitasuna mugatzen da, prebentzioa denean izan daitekeen ekintzarik eraginkorrena.

Absentismo mota hauek bereizten dira:

- **Absentismo pasiboa edo klase barnekoa.** Ikaslea klasera joaten da baina ez du klaseko dinamikan parte hartzen, ez die azalpenei eta jardueri jaramonik egiten eta alde batera uzten ditu, ez du eskolara libururik edo laneko bestelako materialik eramaten, ez ditu etxeko lanak egiten, etab. Esku-hartzea tutoreak hasten du; gurasoekin harremanetan jartzen da gaia lantzeko eta haur horren inplikazio handiagoa lortzeko baliabide motibagarriak bilatzen ditu. Une garrantzitsua da hau, aprobeztatu beharrekoa; familiaren aurrean jarrera abegikorra erakutsi behar da, eskola

esparruko parte-hartzea handitzeko gonbita eginez, betiere absentismo nabarmenik ager ez dadin.

- **Absentismo arina edo hasierakoa.** Absentismoa selektiboa, noizbehinkakoa edo aldizkakoa da, ikaslea berandu joaten da eskolara edo ez da joaten ordu eta egun jakin batzuetan. Justifikatu gabeko eskola-hutsegiteak ordu-kopuruaren %25etik beherakoak dira. Ikastetxe barnean jardun behar da; tutoretzak eta ikastetxeko orientazioko langileek eta zuzendaritza taldeko kideek jardun behar dute ikaslearekin eta familiarekin neurri inklusiboak hedatuz. Absentismo-maila hau gertatzen denean ikastaldearekiko loturak ahultzen dira. Hartara, arazoari gogor ekin behar zaio hura desagerrarazteko, curriculum-desfase larria eta ikaskideekiko eta irakasleekiko lotura emozionalaren haustura gertatu aurretik.
- **Absentismo larria.** Absentismoa kronikoa egiten da. Justifikatu gabeko eskola-hutsegiteak ordu-kopuruaren %25etik %50era bitartekoak dira. Curriculum desfasea areagotzen da gabezia kognitiborik gertatu gabe. Absentistak eta bere ikastaldeak sumatzen dute ez dituztela erreferentzia komunak partekatzen eta, ondorioz, zerbaiten kide izatearen kontzeptua desagertuz doa.
Beharrezkoa da ikastetxeak (zuzendaritza taldeak) berak esku hartzea, gizarte zerbitzuekin koordinatuz eta neurriak hartuz familia berriz hartzeko eta ikasleari hezkuntzan parte hartzeko bideak emateko. Giro inklusiboagoa eraikiko duten aldaketa metodologikoak sartu beharko dira ikasgelan.
- **Absentismo oso larria.** Kasu honetan, justifikatu gabeko eskola-hutsegiteak ordu-kopuruaren %50etik gorakoak dira. Ez dago ia-ia eskolara bertaratzea motibatzen duten moduko loturarik. Deserrotzeak absentistari galarazten dio erreferentzia identitarioak partekatzeko harreman pertsonalak eta taldekoak egitea. Ezin du bere autoestimua eskola testuinguruan negoziatu eta hezkuntza ingurua errefusatuz jokatu du.
Egoera honetara iristen denean zaila gertatzen da hezkuntza inklusiorako bide berriak aurkitzea. Neurriak diseinatu behar dira gizarte zerbitzuekin

koordinatuz eta arazoaren berri emanez Absentismoaren kontrako batzordeari eta Adingabeen Fiskaltzari.

Neurri sorta bat antolatu behar da, arian-arian ezartzekoa eta protokolo baten arabera, kasu hauetan eskolako normalizazioa berreskuratzeko. Esku hartuko dute Hezkuntzako, gizarte zerbitzuetako eta Fiskaltzako langileek, eskola ingurunean eta ingurune soziofamiliarrean, gurasoengan eta ikasleengan eraginez.

- **Eskolatze-eza.** Ez du matrikularik egin edo ez da inoiz eskolara joan. Neurri judizialek dute lehentasuna, nahiz eta ikastetxeak eta gizarte zerbitzuek parte hartu arazoa detektatzen eta kontrolatzen. Kasu hauetan Absentismoaren kontrako batzordeak koordinaturik esku hartuko du eta Adingabeen Fiskaltzari neurri egokiak har ditzala eskatuko dio.

2.2.- ALARMA ZANTZUAK

Absentismoari aurre egin behar zaio lehen zantzuak agertzen direnean, epe laburrean arrakasta izateko bermeren bat izan nahi badugu. Jakina da absentismoak eboluzionatzen duela inguruabarren arabera eta aurreikusteko moduan, gutxiago edo gehiago; ez da ez saihetsezina ez arbitrarioa eta hortxe datza alde aurretik eteteko garrantzia.

Arazoa edozein mailatan kroniko bihurtzen denean konponbidea zaildu egiten da. Horrelakorik gerta ez dadin, berehalako esku-hartzea eragin behar duten marra gorriak muga hauen artean koka daitezke:

- Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan hilean 4 egunez eskolara joaten ez denean, justifikatu gabe.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hilean 20 orduz eskolara joaten ez denean, justifikatu gabe.
- Ikaslea ez bada eskolara modu etengabean edo noizbehinka joaten eta, ikastetxearen iritziz, hori bere heziketa edo segurtasunerako arriskutsua bada.
- Absentismoa detektatzen denean, arina bada ere, ikastetxe edo eskualdeko populazio-sektore jakin bateko ikasle kopuru garrantzitsu batean.

2.3.- PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

Lehenago esan dugun bezala, prebentzioa da absentismoaren kontrako antidotorik hoberena. Kultura anitzeko ingurune batean murgildutako ikastetxe guztiek neurri inklusiboak hartu beharko lituzkete ondoko neurri hauekin bat eginez:

- Harrera-plana, familia guztiek eskolan parte hartzea sustatuko duena, bereziki bazterturik geratzeko arriskuan daudenak. Kontuan izan behar da ikaslearen eta familiaren lehen egunetako esperientzia oso garrantzitsua dela onartua edo baztertua sentitzeko.
- Haur Hezkuntzari dagokionez, nahitaezkoa ez den etapa bat baldin bada ere, frogatu da eskolan arrakasta izatea zuzenean loturik dagoela lehen etapa honetan (0-3 urte bitarteko aldia barne) eskolara erregularitasunez joatearekin. Ahaleginak eta bi egin behar dira lehen etapa honetan baztertzeko arriskuan dauden pertsonak "fidelizatzeko".
- Familia guztien parte-hartzea, desberdintasun sozial, kultural edo abarreatatik zailtasunak dituzten pertsonak eskola bizitzan txertatzea erraztuko duten mekanismoak eta bideak eskura jarritz.
- Metodologia inklusiboak, ikaskuntzaren eraikuntza sozialean oinarrituak eta zientifikoki eraginkorrek direla frogatuak, eskolan arrakasta handiagoa lortzen delako: proiektuen arabera, talde heterogeneotan antolatzea, ikaskuntza kooperatiboa, talde interaktiboak...
- Aniztasunari erantzuteko plana, aniztasuna garatu beharreko potentzial modura hartuko duena eta ez ebatzi beharreko arazo modura.
- Kultura arteko giroa, nortasun-profil berezituak dituzten pertsonen beren burua onartzeko aukera ematen diena.

3.- MARKO INKLUSIBOA

3.1.- ABSENTISMOA IKASTETXEAN LANTZEA

Ikastetxera bertaratzea nahitaezkoa da, baina ez nahikoa; ondoko jarduketetan oinarrituriko hiru zutabek (presentzia, parte-hartzea eta ikaskuntza) eusten diote inklusioari:

3.1.1.- PREBENTZIO JARDUKETAK

- Ikasleei eta familiei informazioa ematea hezkuntzarako eskubidea betetzea nahitaezkoa dela adieraziz.
- Bizikidetza Araudian ezarritako arauen eta Bizikidetza Planean hartutako neurrien gaineko informazioa ematea, ikastetxera bertaratzeari dagokionez.
- Harrera programak antolatzea, ikasturte hasieran zein ikasturtean zehar, hezkuntza erkidego guztiaren parte-hartzearekin eta, bereziki, ikasleenarekin.
- Ikasleen parte-hartzea sustatzea ikastetxean.
- Ikasle guztien parte-hartzea erraztea ikastetxeak edo udalak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan: eskola txapelketak, lantegiak, ikastaroak, etab.
- Gurasoen parte-hartzea bultzatzea, tutoretzen bitartez.
- Eskola absentismoari aurre egiteko neurriak sartzera Tutoretza Planean.
- Eskolan parte hartzeko bide berriak irekitzea gutxiengo kulturaletako ikasle eta familien ikastetxearekiko loturak indartzeko.
- Parte hartzeko metodologiak erraztea ikastetxe barnean.
- Eskolako arrakastan eta, ondorioz, eskola absentismoaren prebentzioan eragina izan dezaketen hezkuntza programetan parte hartzea bultzatzea.
- Absentismoa erraztu dezaketen zehapenak saihestea.

- Erraztasunak ematea zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei eskolako materiala eros dezaten.
- Ikastetxeko jarduera guztietan puntualtasuna sustatzea.

3.1.2.- DETEKZIO JARDUKETAK

- Ikastetxeko Bizikidetza Araudian zehaztea bertaratze hutsegiteak kontrolatzeko jarraitu beharreko prozedura.
- **Irakasle tutoreek:**
 - Beren tutoretzako ikasleen bertaratzearen jarraipena egitea.
 - Familiari edo legezko tutoreei zuzenean eskatzea hutsegiteak justifikatzeko.
 - Hutsegiteak identifikatzea justifikazio arrazoiaren arabera eta hutsegite horien justifikazioa egitea, hala badagokio.
 - Hutsegiteak Ikasketa Burutzari jakinaraztea.
- **Ikasketa Burutzak:**
 - Hutsegite-partreak jaso eta zaintzeaz arduratzea.
 - Familiei bertaratze-hutsegiteen berri ematea.
 - Ikastalde bakoitzaren hutsegiteen konputua egitea, ezarritako prozedura erabiliz.
 - Hilabete bakoitzaren bukaeran absentismo datuak bildu eta hezkuntza taldeari ematea.
 - Hezkuntza erkidegoko gainerako kideekin batera, eskola absentismoa sortzen duten zergatiak identifikatzea.

3.1.3.- ESKU-HARTZE JARDUKETAK

- Bizikidetza Araudian sartuko dira ikasleen bertaratzea kontrolatzeko prozedura, inplikaturako guztien (Ikasketa Burutza, irakasleak, tutorea, Orientazio Departamentua) erantzukizunak eta ikasle absentisten gurasoen edo legezko tutoreen betebeharrak.
- Bizikidetza Planean biltzea absentismoa dagoenean esku hartzeko neurriak.
- Tutoreen ardura da justifikatu gabeko hutsegiteak metatzen dituzten ikasleen familiekin lehen jarduketak egitea. Tutoreek, ikasketaburuarekin eta

orientatzailearekin batera, eta eskola absentismoaren motaren arabera, **JARDUKETA PROTOKOLO** hau erabiliko dute:

1. Elkarrizketatzea ikasle absentistarekin eta hori ikaslearen espedientean erregistratzea.
2. Familiari zitazioak bidaltzea, idatziz edo telefonoz, eta familiarekin elkarrizketatzea (I. ERANSKINA) eta, hori guztia, "Ikasle absentistaren espedientean" erregistratzea.
3. Absentismoaren zergatiak (pertsonalak, sozialak, familiakoak, hezkuntzakoak, etab.) aztertzea eta esku hartzeko alternatibak eta estrategiak bilatzea.
4. Banakako plana prestatzea, berariazko neurriak hartuz eta ikaslearekin eta bere familiarekin konpromisoa ezarriz.
5. Lan planaren eta hartutako konpromisoen betetze-maila gainbegiratzea.
6. Familiari jakinaraztea egindako jarduketa guztiak eta, halakorik egin behar bada, espedientea behar diren gizarte zerbitzuetara igorri dela.

4.- ABSENTISMOAREN LEGE MARKOA

4.1.- ESTATUKOA

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena.
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzekoa.

4.2.- FORU KOMUNITATEKOA

- 15/2005 Foru Legea, abenduaren 5ekoa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa (laburpena).
 - 8. artikulua. Nafarroako toki entitateen eskumenak.

1. Nafarroako toki entitateei, gizarte zerbitzuen eta eskolatzearen zaintzaren arloetan dituzten eskumenen arabera, eginkizun hauek dagozkie:

f) Adingabeen arrisku egoerak detektatu, adierazi eta horietan parte hartzea, bereziki bere lurraldeko ikastetxeekin eta eskola eta osasun unitateekin elkarlanean, 47. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan ezarririko kasuetan izan ezik.

h) Foru Komunitateko Administrazioan hezkuntzaren arloan eskudun den departamentuarekin elkarlanean, nahitaezko eskolatzea bermatu eta bereziki eskola absentismoari aurka egiteko behar diren neurriak hartzea.

- 15. artikulua. Subsidiaritatea.

Nafarroako Administrazio Publikoen jarduketa subsidiarioa izanenda gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei dagokienaren aldean, haiek baitira, ahal duten ber, adingabeen garapen integralerako beharrezkoak diren bizi baldintzak ziurtatzeko arduradunak.

- 24. artikulua. Hezkuntzarako eskubidea.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek begiratuko dute nahitaezko eskolatzea indarra duten legeen arabera bete dadin. Adingabeak ikastetxeetara joan daitezen eta eskolan huts egin ez dezaten behar diren ekintzak koordinatu eta bultzatuko dituzte.

- 32. artikulua. Aurreneurriak.

Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen barruan, gizarte zerbitzuak planifikatzean foru lege honen arabera zehazten diren aurreneurriak garatu eta bultzatuko dituzte, bereziki adingabeendako arreta integrala xede dutenak, jarduketa hauek erabiliz, besteak beste:

1. Hezkuntzaren esparruan:

- a. Irakaskuntza nahitaezkoa ez den adinetan adingabeei laguntzeko zerbitzuak sustatzea. Zerbitzu horiek eskuratzeko lehentasuna emanen zaie desgaitasunak dituzten adingabeei eta gizarte, kultura eta ekonomiaren aldetik behartsuenak diren giza taldeei.
- b. Nahitaezko eskolatzearen bermea eta eskolako absentismoaren kontrola.
- c. Eskola porrotari aurrea hartzea.
- d. Ohiko eskola sistema onartzen ez duten adingabeendako, porrot egin dutenendako edo eskolara ez doazenendako gizarte garantiako heziketa programak garatzea.
- e. Zailtasun bereziak dituzten adingabeak gizarteratzeko programak garatzea.
- f. Ingurune behartsuetako adingabeendako ordaineko neurriak.

g. Haur eta nerabe etorkinentzako berariazko neurriak biltzen dituzten hezkuntza programak garatzea. Programa horiek gauzatuko dira hezkuntza arloko profesionalak, hezitzaile sozialak eta aipagai dugun populazio-talde zehatz honek beharrezkoa duen laguntzan adituak diren langile espezializatu guztiak aintzat harturik.

- 33. artikulua. Ikastetxeen betebeharrak.

1. Ikastetxeetako arduradunek, eskola kontseiluek eta irakasleek elkarlanean aritu beharko dute toki entitateekin eta Foru Komunitateko Administrazioan hezkuntzaren arloan eskumena duen departamentuarekin, nahitaezko eskolatzea bermatzeko. Hartarako, betebeharrak izanen dituzte:

- a. Eskoletan izandako hutsegite justifikatu gabeak jakinaraztea.
- b. Toki entitate eskudunekin adosturik, eskola absentismoari aurka egiteko behar diren neurriak hartzea.

2. Entitate pribatuekin eta partikularrekin izenpetzen diren hezkuntza itunetan espresuki adieraziko dira artikulua honetan aipatzen diren jakinarazpen eta elkarlan betebeharrak.

- 40. artikulua. Langile espezializatuak.

2. Lantalde espezializatuak osatzen dituzten langileak, beren lanean ari direnean, agintaritzat joko dira. Langile horiek Administrazioari edozein organori lankidetzara eta elkarlana eskatzen ahalko diote. Organo horiek behar den informazio eta laguntza aktiboa eman beharko diete, foru lege honetan arautzen diren jarduketak bete ahal izateko.

- 49. artikulua. Eskumenak.

Adingabe bat geriza-gabetasuneko egoeran dagoela ohartuz gero, legeria zibilean eta foru lege honetan xedaturikoarekin bat, Foru

Komunitateko Administrazioako organo eskudunari dagokio egoera hori deklaratu eta adingabeen berehalako tutoretza bere gain hartzea.

- 50. artikulua. Geriza-gabetasuneko egoerak.

h. Adingabeak ez eskolatzea, ohituraz.

- 54. artikulua. Kontzeptua eta edukia.

1. Familiendako sostenguaren xedea da diru, material, gizarte, hezkuntza eta terapia arloetako laguntza ematea, familiaren ingurunea eta adingabeen beharrak asetzeko modua hobetzeko, familiaren bereizketa saihestearren edo, bereizketa gertatu izanez gero, familiara itzuli ahal dadin.

2. Sostengua toki entitateetako oinarrizko eta espezializaturiko zerbitzuen esku-hartze teknikoaren bidez eta Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzu espezializatuen bidez burutuko da.

- 55. artikulua. Familiak sostengatzeko jarduketak.

1. Hona hemen familiak sostengatzeko jarduketa batzuk:

a. Aholkularitza eta orientazio teknikoa, guraso-eginkizunak ongi egiteko eta familiaren dinamika normaltzeko erraztasunak emateko.

b. Familien hezkuntza, guraso-eginkizuna betetzen dutenak seme-alabak artatu, hezi eta zaintzeko eginkizunetarako gaitzeko.

- 56. artikulua. Familia onuradunaren lankidetzak.

1. Sostengatzeko neurri eta jarduketan onuradun den familiak lagundu beharko du esku-hartzeari ezarritako helburuak lortzeko.

2. Familia onuradunak lankidetzarik eskaini ezik edo neurriak eta jarduketak eragotziz gero, horiek bertan behera utzi eta beste

batzuk hartzen ahalko dira, geriza-gabetasunaren deklarazioa barne.

- 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzara arautzen duena.
- 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.
- 40/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeak sortu eta arautzen dituena.
- 7/2009 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea parte batean garatzen duen erregelamendua onesten duena.

5.- ESKU-HARTZE PRINTZIPIOAK

Protokolo honen ikusmoldea, prestakuntza eta funtzionamendua printzipio hauek arautzen dituzte:

1.- Erantzukizun partekatua

Absentismoa desagerrarazteko lanean ari diren instantzia eta eragileek erantzukizun komuna beren gain hartzen dute hezkuntzarako eskubidearen babesaren ikusmolde global eta ez-zatitu batean.

2.- Sareko lana

Zerbitzuen koordinazio sistematikoan oinarritua, baliabideak optimizatzeko eta eraginkortasunean irabazteko.

3.- Osagarritasuna

Eginkizunak modu ordenatuan banatu eta hierarkizatzen dira, proposatutako neurrien aplikazioan bikoiztasunak, teilakatzeak eta hutsuneak saihestuz.

4- Berehalakotasuna

Modu gertagarrian esku hartu behar da, erabakitzeko eta burutzeko epeak laburtuz, konponbideak denboraz irits daitezten.

6.- ESKU-HARTZE MAILAK

1. MAILA: IKASTETXEAK

ESPARRUA	Ikastetxea
ARDURADUNA	Ikasketaburua / Orientatzailea
EGINKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte bakoitzeko Bizikidetza Planean antolaketa arloko alderdi hauen plangintza egitea: <ul style="list-style-type: none"> - Eskola absentismoa kontrolatu eta hari jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea. - Absentismoaren balizko zergatiak detektatu eta aztertzea. - Prebentzio jarduerak (harrera planak...) programatzea. - Hezkuntza proposamena egokitzeko neurri egokiak hartzea.
LEHEN ESKU-HARTZEA: TUTOREAK HILEAN JUSTIFIKATU GABEKO 2 HUTSEGITE ARTE* (eskola-kredituaren %10)	<ul style="list-style-type: none"> • Lanak: <ul style="list-style-type: none"> - Hutsegiteak egunero kontrolatzea. - Familiarekin harremanetan jartzea telefonoz. - Familiarekin edo arduradunarekin elkarrizketatzea. - Egindako kudeaketak idatziz jasotzea.
BIGARREN ESKU-HARTZEA: IKASKETABURUAK / ORIENTATZAILEAK HILEAN JUSTIFIKATU GABEKO 4 HUTSEGITE ARTE (eskola-kredituaren %20)	<ul style="list-style-type: none"> • Lanak: <ul style="list-style-type: none"> - Familiarekin berriro harremanetan jartzea telefonoz. - Posta bidezko jakinarazpena (bidezkoa bada). - Familiarekin edo arduradunarekin elkarrizketa adostu eta egitea. - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzea. - Egindako kudeaketak eta eskuratutako erantzuna idatziz jasotzea ad hoc prestatutako ikasle absentistaren espedientean (II. eranskina).
2. MAILARA IGAROTZEKO BALDINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> - Maila honi dagozkion ekintza guztiak egin ondoren emaitzarik ez lortzea. - Ikaslearen absentismo-indizea %20koa edo handiagoa izatea. - Kasuaren txostena egitea hurrengo mailan egin beharreko jarduketara proposamenarekin batera. - Absentismoaren kontrako batzordeari 2. mailara igaro dela informatzea.

* Lehen Hezkuntzan hutsegite bat egin dela usteko da ikaslea ez bada egun osoan eskolara joaten; bi egun erdi egun desberdinean meta daitezke.

Bigarren Hezkuntzan hutsegite bat egin dela usteko da ikaslea ez bada egun osoan eskolara joaten; ordu solteak meta daitezke egun bati dagokion ordu-kreditua osatu arte.

2. MAILA: OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN SAREA

Nafarroako toki entitateei dagokie, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, behar diren neurriak hartzea nahitaezko eskolatzea bermatzeko eta bereziki eskola absentismoari aurka egiteko, gizarte zerbitzuen eta eskolatzearen zaintzaren arloetan dituzten eskumenen arabera (15/2005 Foru Legea, 8. art.).

ESPARRUA	OINARRIZKO ESKUALDEA: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)
ARDURA-DUNA	OGZko erreferentziako profesionala
EGINKIZUNAK	<p>Prebentiboak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adingabeak ikastetxeetara joan daitezten eta eskolan huts egin ez dezaten behar diren ekintzak koordinatu eta bultzatzea (15/2005 Foru Legea, 24. art.). - Ikastetxeekin adosturik, eskola absentismoari aurka egiteko behar diren neurriak hartzea (15/2005 Foru Legea, 33.b. art.). - Familiak sentsibilizatzeko ekintzak egitea, eskolatzearen garrantziaren eta eskola sisteman sartu eta jarraitzearen onuren gainean. 3 eta 6 urte bitarteko haur ijitoen eskolatzea sustatzea (Nafarroako Ijitoei Arreta Emateko I. Plan Integrala, 1.1 neurria). - Adingabeen arrisku egoerak atzeman, adierazi eta horietan esku hartzea, bereziki bere lurraldeko ikastetxeekin eta eskola eta osasun unitateekin elkarlanean (15/2005 Foru Legea, 47.1 art.). <p>Birgaitzaileak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diru, material, gizarte eta hezkuntza arloetako laguntza ematea, familiaren ingurunea eta adingabeen beharrak asetzeko modua hobetzeko, familiaren bereizketa saihestearren (15/2005 Foru Legea, 54. art.). <p>Gizarte laguntza eta lankidetzak komunitateko eragileekin</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tokiko erakundeen koordinaziorako foroak sor daitezten sustatzea (sareko lana), oinarrizko gizarte zerbitzuetako, ikastetxeetako, osasungintzako, udaltzaingoko, gizarte ekimeneko entitateetako... ordezkariekin, eskola absentismoko egoerak detektatu eta haietan esku hartzeko. - Koordinazio foroaren prestakuntza ekintzak sustatzea, absentismoko egoeren ulermena, detekzioa eta komunikazioa hobetzeko eta egoera horiei hobeto heltzeko.

LANAK	<p>Prebentiboak</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikastetxeekin elkarlanean guraso eskolak sortzea, sostengurako, hezkuntzarako eta aurrea hartzeko neurri gisa (15/2005 Foru Legea, 24.6 art.).- 0-6 urte bitarteko adingabeei laguntzeko zerbitzuak sustatzea, zerbitzu horiek eskuratzeko lehentasuna emanez gizarte, kultura eta ekonomiaren aldetik behartsuenak diren giza taldeetako adingabeei edo historial absentista dutenei (15/2005 Foru Legea, 32 art.).- Gizartean Txertatzeko Akordioetan helburutzat hartzea adingabeak eskolatu eta erregularatasunez eskolara joan daitezela, eta familiei helburu hori lortzen laguntzea.- Deseskolatzea eta absentismoa detektatzea:<ul style="list-style-type: none">1.- Kasua jasotzea: Jakinarazpena egin duen eragilearen informazioa jasotzea. Ikastetxearen txostena hartzea. Aurretik espedienterik dagoen edo ez egiaztatzea. Familia absentistekin harremanetan jartzea eskolatzeari laguntzeko, familiari laguntzeko... informazioko, disuasioko neurriak hartzeko.2.- Gizarte balorazioa: Premia maila identifikatzea. Jasotako informazioa aztertu eta baloratzea, Haurrak Babesteko Zerbitzuaren esku-hartzearen egokitasunari eta zerbitzu hartzailearen esku hartzeko eskumenari dagokienez. Babesgabetasun-indizea baloratzea, hala egin beharreko kasuetan.- Birgaitze fasera igarotzea edo kasua beste zerbitzu batzuetara bideratzea.
-------	---

LANAK	<p>Birgaitzaileak</p> <ul style="list-style-type: none">- Familiei aholkularitza eta orientazioa ematea, guraso-eginkizunak ongi egitea eta familiaren dinamika normaltzea errazteko. Familien hezkuntza, guraso-eginkizuna betetzen dutenak seme-alabak artatu, hezi eta zaintzeko eginkizunetarako gaitzeko (15/2005 Foru Legea, 54.2 eta 55. art.).- Gizarte laguntza eta lankidetzakomunitateko eragileekin:<ul style="list-style-type: none">□ Sarean lan egitea erakundeen arteko koordinazio soila baino zerbait gehiago da. Elkarrekin lan egiten hastea da, helburuak eta programak partekatzea, baterako jarduketak diseinatzea, baliabideak eta emaitzak partekatzea.□ Helburu komunekin lan egitea eta hizkuntza komun bat, balorazio protokoloak eta kasuari ekiteko plan bat erabiltzea. Urtero profesionalak batera jasoko dute prestakuntza sareak berak erabakitzen dituen gaietan.□ Hobeto eta ahalik eta lasterren detektatzea absentismo kasuak edo eskolatze-erakundeak. Komunikazio bideak irekitzea sareak osatzen duten erakunde eta entitateen artean.□ Espediente bakoitza taldean baloratzea: profesional desberdinek kasuistika batera lantzea. Ezarri eta adostea absentismo kasu bakoitzean aplikatu beharreko neurriak eta erabili beharreko tresnak.□ Errealitatea zein den aztertzea, absentismoa desagerrarazten laguntzen duten prebentzio neurriak baloratu eta proposatzea.□ Sareko ekintzak koordinatzea haien eraginkortasuna optimizatzeko.
-------	--

<p>3. MAILARA IGAROTZEA</p>	<p>3. MAILARA IGAROTZEKO BALDINTZAK:</p> <ul style="list-style-type: none">- Maila honi dagozkion ekintza guztiak egin ondoren emaitzarik ez lortzea, 1. mailatik 2.era igaro dela jakinarazi denetik hilabete bateko epean.- Absentismoak berarekin badakar adingabearen babesgabetasun-egoera (arriskua edo geriza-gabetasuna):<ul style="list-style-type: none">• Familia onuradunak lankidetzarik eskaini ezik edo neurriak eta jarduketak eragotziz gero, horiek bertan behera utzi eta beste batzuk hartzen ahalko dira, geriza-gabetasunaren deklarazioa barne (15/2005 Foru Legea, 56. eta 47.B art.).• Adingabea ez eskolatzea, ohituraz (15/2005 Foru Legea, 50. art.).- Absentismo-maila %50ekoa edo handiagoa izatea. <p>JARDUKETAK:</p> <ul style="list-style-type: none">- Kasuaren txostena egitea hurrengo mailan egin beharreko jarduketa proposamenarekin batera.- Absentismoaren kontrako batzordeari 3. mailara igaro dela informatzea.- Familiari 3. mailara igaro dela informatzea.
---------------------------------	--

3. MAILA: ADINGABEAREN BABESA

ESPARRUA	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA
ARDURADUNA	Adingabearen Babes eta Sustapenerako atalburua
EGINKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none">- Babesgabetasun-egoera kokatzea.- Fiskaltzari informatzea benetan dagokion kasuetan.
LANAK	<ul style="list-style-type: none">- Babesgabetasun-egoera deklaratzeko prozedura hastea. (1)- Babesgabetasun-egoera (arina, moderatua edo larria) deklaratzeko prozedura amaitzea. (2)- Baloratutako babesgabetasun-egoerarekin bat datorren eta koherentea den babes neurria abian jartzea. (3)<ul style="list-style-type: none">a) Etxean esku-hartzeab) Egoitza harrerac) Familia harrera

(1) Prozedura hastearekin batera, administrazio ebazpen bat egiten da hasitako administrazio egoera Fiskaltzari jakinarazteko. Era berean, baita administrazio ebazpenaren bidez ere, egoera bideratu duen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari informatzen zaio.

Adingabe absentistaren familiari bere semearekin edo alabarekin loturik hasi den administrazio prozesuaren (babesgabetasun-egoera deklaratzeko prozedura) berri ematen zaio, dagokion administrazio ebazpenaren bidez.

(2) Prozedura amaitzearekin batera, zehazten da, lehenik, babesgabetasuna dagoen eta, baldin badago, adingabearen babesgabetasun-egoeraren arriskua arina, moderatua edo larria den edo geriza-gabetasun egoeran dagoen. Geriza-gabetasun egoeraren deklarazioak berekin dakar gurasoak guraso-agintez gabetzea. Era berean, prozedura amaitzeko modu hori Fiskaltzari, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bideratzaileari eta familiari berari jakinarazten zaie, administrazio ebazpenaren bidez.

(3) Prozedura amaitzearekin batera, eta behin babesgabetasuna dagoen edo ez zehaztutakoan, dagoen kasuetan haztatuko da, egoera hori desagerrarazteko/minimizatzeko xedearekin ondoren abian jarri beharreko babes neurria aktibatzeke. Neurriak izan daitezke, hasteko, laguntza ezartzea adingabearen eta bere familiaren etxean bertan (familian esku hartzeko programen bidez) edo, azken neurri gisa, adingabea etxetik ateratzea egoitza batean (babes zentro batera bizitzera joanen litzateke) edo familia batean (harrerako familia batekin bizitzera joanen litzateke) harreran egotera pasatuz.

4. MAILA: FISKALTZAKO ADINGABEEN ATALA

ESPARRUA	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA
ARDURADUNA	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO FISKALTZAKO ADINGABEEN ATALA
EGINKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none">- Nafarroako Gobernuko Adingabearen Babes eta Sustapenerako Ataleko jakinarazpenak jasotzea. Erakunde publiko horrek bereziki larriak diren kasuak igorriko ditu soilik. Larritasuna zehazteko parametroak izanen dira absentismoa denboran gehiegi luzatzea edo adingabe absentistaren adin goiztiarra.- Babes espedientea hastea egin beharreko ekintzak baloratzeko, hala badagokio, eta beharrezkoak diren eginbideak praktikatzeko eta behar denean espedientearen jarraipena egitea.- Adingabearen Babes eta Sustapenerako Atalari espedientearen azken ebazpena jakinaraztea, ondoren egin litekeen espedientearen bilakaeraren jarraipena alde batera utzita.

I. ERANSKINA

GURASOEI BIDALTZEKO GUTUNAREN EREDUA

.....(e)n, 201.....(e)koaren(e)an

Jaun/andre estimatua:

Ikastetxeko ikasketaburua naiz. Aditzera eman nahi dizut zure semea edo alaba ez dela klasera etorri ... egunetan eta orain arte ez daukadala hutsegite horien justifikaziorik.

Nahi nuke zu Ikasketa Burutzara etortzea(e)koaren(e)an,(e)tan, hutsegite horiek justifikatzeko.

Ez bazara egun horretan bilerara etortzen edo ez bazara eguna edo ordua aldatu nahi duzula esateko gurekin harremanetan jartzen, aditzera ematen dizut Ikasle absentistaren espedientea irekiko dela.

Besterik gabe, jaso ezazu agur bero bat.

IKASKETABURUA

Stua:

II. ERANSKINA

IKASLE ABSENTISTAREN ESPEDIENTEA

IKASMAILA:

TUTOREA:

IKASTURTEA:

IZEN-DEITURAK:

JAIOTEGUNA:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

MUGIKORRA:

OHARRAK:

IKASTETXEAN EGINDAKO HUTSEGITE KOPURUA

	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA
JUSTIFIKATUAK										
JUSTIFIKATU GABEAK										

IKASTETXEAK EGINDAKO JARDUKETAK

		TUTOREA	IKASKETA BURUA	ORIENTATZAILEA
IKASLEAREKIN				
FAMILIEKIN	TELEFONO DEIAK			
	ELKARRIZKETAK			
	GUTUNA (I. ERANSKINA) BIDALTZEA			
	BESTE BATZUK			

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Stua.:

III. ERANSKINA

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETARA DERIBATZEA (2. MAILA)

ESKOLA ABSENTISMOAREN BANAKAKO TXOSTENA. ISILPEKOA¹

IKASTETXEA :
TXOSTENAREN HASIERA EGUNA:

IKASLEAREN DATUAK

1. DEITURA:	2. DEITURA:	IZENA:	
JAIOTEGUNA:	JAIOTERRIA:		
HELBIDEA:		TELEFONOA:	MUGIKORRA:
AITAREN EDO TUTOREAREN IZENA:		IKASLEAREKIN BIZI DA?	
AMAREN EDO TUTOREAREN IZENA:		IKASLEAREKIN BIZI DA?	
ANAI-ARREBA KOPURUA:	ETXEAN ELKARREKIN BIZI DIREN FAMILIAKIDEAK:		
INTERESEKO BESTE DATU BATZUK:			

IKASLEAREN ESKOLA DATUAK

IKASMAILA:	IKASMAILA ERREPIKATZEN ARI DA?	TUTOREA:							
ESKOLA ERRENDIMENDUA (gainditu gabeko arloak edo irakasgaiak, aniztasunari erantzuteko neurriak...):									
BESTELAKO DATU AZPIMARRAGARRIAK (portaera, osasuna, higiena, elikadura...):									
ESKOLATZEAREN AURREKO DATUAK:									
IKASTETXEA	IKASMAILA	OHARRAK (aurreko absentismoa...)							
HUTSEGITE KOPURUA									
IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA

¹ “Beren lanbideगतिक kasua ezagutzen duten agintariek eta pertsonak behar bezalako zuhurtasunez jokatuko dute”. 1/1996 Lege Organikoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa. 13.3 art.

IKASTETXEAK EGINDAKO JARDUKETAK.

FAMILIAREKIN. Esan nork egin dituen jarduketa horiek: tutoreak, ikasketaburuak, orientatzaileak... TELEFONO DEIAK:
GUTUNAK:
ELKARRIZKETAK:
BESTE BATZUK:
JARRERA, KONPONBIDEAK ETA KONPROMISOAK:
OHARRAK:

IKASLEAREKIN. Esan nork egin dituen jarduketa horiek: tutoreak, ikasketaburuak, orientatzaileak... CURRICULUM EGOKITZAPENA:
HARRERA ESTRATEGIAK:
ANTOLAKETAREN MALGUTASUNA:
BESTE BATZUK:
JARRERA, KONPONBIDEAK ETA KONPROMISOAK:
OHARRAK:

BESTE ERAKUNDE BATZUEK EGINDAKO JARDUKETAK:


BESTE ERAKUNDE BATZUEK ESKU HARTZEN BADUTE, ESAN ZEINEK:
OHARRAK:

.....(e)n, 201...(e)koaren(e)an

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Stua.:

FLUXUGRAMA



Inklusio Proiektuetarako Bulegoa: proyectos.de.inclusion@navarra.es